
Hika teatroa
eo
euskal off 2050
Egilea : Agurtzane Intxaurraga
Zuzendaria : Makarena Pombo
Antzezleak : Anjel Alkain
Loli Astoreka
Belen Cruz
Miren Gojenola
Josu Mujika
Babesleak:
Gipuzkoako Foru Aldundia
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Kolaboratzaileak:
SAR OBE
USURBILGO UDALA

# *EuskalOFF 2.050*

***EuskalOFF 2.050*** *Herri honen arazo zahar bati egitek*o *gogoa dela medio sortu da, Gure* ***hizkuntzaren*** *normalkuntza hain zuzen ere."Bai euskarari" kanpainan ikusi ahal izan dugunez gizarteak kezka handia du euskararen biziraupenaren inguruan. Guk ere gaiari heldu nahi izan diogu. Egiari zor zaion errespetuz. Historiaren ald*e *tragikoa azalduz. Baina* ***etorkizun itxaropentsua islatuz****.*

*Mende asko dira euskara sortu zenetik. Europako zaharrenetako dela diote aditu askok. Mende asko iraun du, iraun, herri desberdinen asmo kolonizatzaileei aurre eginez. Egun ere arriskutik kanpo dela ezin esan, ordea. Zoritxarrez.*

*Egun,* ***gure seme-alabek euskaraz ikasi, pentsatu, bizi...posible dute****. Zorionez. Baina* ***ingurun*****e** ***euskaldunetan*** *soilik. Izan ere urteetako erasoak ordaintzen ari garen honetan zonalde ez euskaldun asko dugu oraindik; eta hauetan euskaraz bizitzea zaila da benetan.*

***TXALO*** *Ekoizpenak,* ***ITTURRI*** *kulturgintza Zerbitzuak eta* ***HIKA*** *Antzerkiak indarrak eta gogoak elkarturik eszenifikatu nahi izan dagokigun gai hau.*

# SINOPSIA

2.050. urtean, Bill eta Mary, amerikar turista bikote batek Euskal Herriko kultura eta hizkuntzaren museo antropologikoa bisitatzea erabakitzen dute. Bertako hizkuntza, munduko hainbat eta hainbat hizkuntza gutxitu bezala, hizkuntz nagusien ondorioz desagertu egin zen . Gaur, museo hori da beraz Euskal Herriaz gelditzen den azken aztarna. Baina hau ez da edozein museo bezalakoa, bertan hainbat ezusteko emango dira. Adibide nagusia antzezlanaren pertsonai nagusia da, ama, bere alaba galdu duen amatzarra.

Bill eta Maryk, museoa osatzen duten areto ezberdinetatik murgilduz narrazioaren hari nagusia garatuko dute. Hauen hizkuntza, 2050. urteko munduko biztanlego nagusiarena bezala espanglisa da. Hizkuntz hau XX. mendaren azken urtetan sortu zen, munduko bi hizkuntz nagusienetarikoak bat egin zutenean: ingelesak eta hispanoak. Gutxinaka ezezaguna egingo zaien herri zabal bat aurkituko dute eta aurrera egin ahala gogora ekarriko dituzte euren oroimenean ahaztuta zituzten hainbat elementu. Gizonak gero eta jarrera iheskorrago bat erakutsiko duen neurrian, emakumeak bereak egingo ditu bertan aurkituko dituen elementu ezberdinak.

EuskalOFF 2050 antzezlanak taularatze abanguardista bat proposatzen du. Ikus-entzunezkoak bat egingo dute ukitu surrealistak dituen testu bizkor batekin. Batetik turisten jarrerak "sitcom" erako egoerak sortuko ditu, erabat komikoak, baina ordea, amaren pertsonaiaren bidez antzerki poetiko baten murgilduko gara, non sinbolo eta joku bisualak izugarrizko garrantzia hartuko duten. Hiru pertsonai nagusi egoteaz gain, dozenaka izango dira joan etorrian ibiliko diren beste pertsonai batzuk.

Diziplina anitz biltzen dituen tragikomedia da EuskalOFF 2050: Komedia, tragedia, dantza, dokumentazioa, antzerki poetikoa. Guztiarekin etorkizuneko pisuzko historia bat osatu dugu irreala edo oso erreala bihurtu daitekeena. Baina azkenean EuskalOff 2050 ikuskizunaren helburu nagusia ikuslegoari barregarria egingo zaion antzerki lan bat eskaintzea da.



Amonarekin, semearekin, lagunarekin,
maite duzunarekin euskeraz.
Miren Gojenola



Euskeraz maite zaitut.
Belen Cruz



Bere baitan datza, herri
honen biziraupena.
Josu Mujika



Ai, putzuak beteak ez baleude apoz,
nork emango lioke bizitza honi poz.
Anjel Alkain



Euskadi da gorputza
eta euskera bere bihotza.
Loli Astoreka

EuskalOFF 2050

(ideia orijinala - Agurtzane Intxaurraga eta Ritxi Lizartza)

**EGILEA - Agurtzane Intxaurraga**

**ZUZENDARIA - Macarena Pombo**

**ANTZEZLEAK - Anjel Alkain**
**Loli astoreka**
**Belen Cruz**
**Miren Gogenola**
**Josu Mujika**

**OFF AHOTSAK - Tessa Andonegi**

**Iñaki Beraetxe**

**Agurtzane Intxaurraga**

**UMEAK - Asier, Ander, Aroa, Mikel, Beñat, Ander, Ana, Julen eta Laida**

**ARGI DISEINUA - Jon Anibal**

**JANTZI ETA ATREZZO DISEINUA - Imanol Eizagirre**

**DISEINU GRAFIKOA - Manu Muniategiandikoetxea**

**ARGAZKIAK - Garikoitz Garaialde**

**DOKUMENTAZIOA - Ritxi Lizartza**

**HIZKUNTZ ARDURADUNA - Ritxi Lizartza**

**KOREOGRAFIA - Josu Mujika**

**MUSIKA AHOLKULARITZA - Kaki arkarazo**

**ZUZENDARI LAGUNTZAILEA - Tessa Andonegi**

**ARGI TEKNAKARIA - Jon Andoni Lizarraga**

**SOINU TEKNAKARIA - Sergio López**

**JANTZI ETA ATREZZO EGILEAK - Imanol Eizagirre eta Nagore Leoz**

**AUDIO GRABAKETA - SOINU EFEKTOAK ETA**

**EUSKALERRIAN EUSKARAZ KANTUAREN ADAPTAZIOA - Joxan Goikoetxea**

**AURRE PRODUKZIOA - Belen Cruz**

**PRODUKZIO EXEKUTIBOA - Mikel Laskurain**

**SALMENTA - HIKA (Belen) - ITURRI (Brixi)**

**EKOIZPENA - TXALO Ekoizpenak. ITURRI Kulturgintza Zerbitzuak eta HIKA Antzerkia.**

**LAGUNTZA BEREZIA - Jon Sarasua eta "Gernika Gogoratuz"**

**Euskal off 2050**

BEHAR TEKNIKOA:

NEURRIAK - Altuera - 5 m.
Zabalera - 12 m.
Fondoa - 8 m.

POTENTZIA – Argiak - 50.000 W
Soinua - 3.000 W

KAMARA BELTZA
ESZENATOKIAREN SARBIDERAKO ESKILARA EZKERRALDETIK PUBLIKOTIK BEGIRA

LANGILEAK - Elektrikari bat eta bi laguntzaile karga eta deskarga egiteko.

MONTAJEA - 10 ordu

DESMONTAJEA - 3 ordu